

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUIAKO UDALA

#### Jarduera ekonomikoen gaineko 2019ko zerga kobratzea

Unai Gutiérrez Urkizak, Arabako Lurralde Historikoko Zuiako Udaleko alkate lehendakariak,

Jakinarazten dut: 2019ko jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren ordainagiriak ordaintzeko moduan egongo direla, borondatezko epean, 2019ko irailaren 1etik urriaren 31 arte, egun biak barne, egun balio dunetan, larunbatetan izan ezik.

Zerga horren eraginpekoek, ordainketa inongo banketxetan helbideratuta ez badute, Kutxabanken edozein bulegotan ordaindu ahal izango dituzte zerga zorrak, aurkeztuz etxean jasoko duten ordainagiri abisua; abisua jaso ezean, Zuiako udal idazkaritzan eskatu beharko da.

Zergapekoei ohartarazten zaie komeni dela zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera, hala xedatzen baitute Zergen Foru Arau Orokorrak eta Dirubilketarako Arautegi Orokorrak, eta ordaindu gabeko kuotak dagokion errekarua gehituta (ehuneko 10 edo ehuneko 20) kobratuko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Murgia, 2019ko irailaren 2a

*Alkate lehendakaria*

**UNAI GUTIÉRREZ URKIZA**